

■ **Ensemble, on est plus fort !** ■

**« Elkarrekin indartsuagoak gara »  
Frantziako hizkuntzak kulturaren garapenerako eta  
biziraupenerako funtsezko norabideak.**

1955eko martxoaren 19an, Frantziak berretsi duen Europar Konbentzio Kulturalaren printzipioekin bat egiten duela baieztatzen du SNRL-k, eta baita azken honekin lotura duten itunekin ere, hots :

-« Hizkuntza minorizatu eta erregionalen Europar gutuna » 1992ko azaroaren 5ean, izenpetua eta ez berretsia 1999ko maiatzaren 7an.

-Europar Kontseiluko masa komunikabideen protokolo eta hitzarmenak.

1999ko maiatzaren 7an, delako gutuna izenpetu zen egunean, Frantziako Adierazpenean eginiko oharrik kontutan harturik, SNRL-k, « Hizkuntza minorizatu eta erregionalen Europar gutuna »-ren berrespena eskatu zion Frantziari.

Elkartearentzat duen ondare kulturalaren baloreari dagokionez, 2005eko urriaren 27an Europar Kontseiluan izan zen konbentzioaren markoan, Frantziak egin zuen engaiamendua azpimarratu nahi du SNRL-k, batez ere, bere 14.artikuluaren eta are zehatzago « a » puntuan: « informatikaren munduan, hizkuntza eta kultura aniztasuna bultzatu zein bermatzen dituen iniziatiben » alde .

SNRL-k, Frantziako eta Frantziak itsasgaindi dituen lurraldeen ondare linguistikoaren biziraupena, adierazpena eta garapena bultzatuko duen irriti politika definitzea eta sortzea eskatzen die, Frantziako Kultura eta Komunikazioaren barne sailari zein lurralde kolektiboetako Kultur Zuzendaritzari. Halaber, SNRL-k garapenaren prozesuan parte hartu nahiko luke, hedapenaren eragile ezberdinen ordezkari gisa.

SNRL-k proposatzen du, eskualdeko hizkuntzen promozioa, irriti baten heziketa eta kultur ekintzaren elementu baliozkoak izatea, tokiko Adierazpen radiofonikoei zuzenduriko Sustegu Fondoen laguntza publiko erregulazioaren atribuzioaren baitan.

CSA-k egiten duen frekuentzia analogiko eta numerikoen banaketa egiterakoan, SNRL-k proposatzen du eskualde hizkuntzetan egiten edo egiteko asmoa dagoen saioak, ezaugarri elementu gisa kontutan hartzea, musika eta kultur aniztasunen proiektuaren baitan. SNRL-k planteatzen du, xedapen hau, Ikus-Entzunezko Kontseilu Gorenaren irizpen eta gomendapenaren helburu izatea.

SNRL-k nahiko luke irratiek, jardunbiderako eskualdeko diru laguntzen eskurantzaz gain, eskualdeko edo herriko hizkuntza beraien saioetan erabiltzeagatik sustegun espezifikoko bat jasotzea.

Eta sustegun espezifikoko hori, Lurraldeen eta Eskualdeen Funtzaren baitan irriti adierazpenari emandako susteguren barnean kokatzea eskatzen du. Ildo honetatik, SNRL-k, Frantziako Eskualdeen Elkarteari, Frantziako Departamenduen Batzarrari, Itsas-gaindikoko kolektibitateei eskatzen die ebaluazio bat egitea beraien lurraldeen hizkuntza aniztasun eta irriti difusio asoziatiboaren propozizioaren inguruan.

SNRL-k nahiko luke, soldatadun edo profesionaleri eta bolondresei eskainitako eta hain zuzen ere, Frantziako hizkuntzen praktikatuko modu jarraituan zuzendutako formakuntza profesionalaren koadrotik kanpo dauden formakuntzak, onartuak izan daitezzen eta AFDAS-engandik finantzatuak izatea, irriti difusioaren konbentziozko OPCA eta VAE prozesuaren baitan sartzen diren praktika profesionalen markoan, hizkuntza hauek erabilera onartua izatea eta CPNEF-AV-ren Ikus-Entzunezko Lanbideen Behatoki Prospektiboaren eginkizunetan identifikatuak izan daitezzen.

SNRL-k, bere nazioarteko eginbidean eta, UNESCO-ren Kultur Aniztasunaren alde Aliantza Globaleko kide gisa eta AMARC eta irriti elkarte zein komunitarioen federazio nazionalak, giza ondare eta eskualde eta herriko hizkuntzen sustengurako konpromezua hartzen dute.